



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

2022/12/20an EGINDAKO EZ OHIKO
UDALBATZA.

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL
PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día
20/12/2022.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maite Uribe Beristain
Purificación Regidor Varela
Antonio Regaño Sájeras
Josu Ezkurdia Santamaría
Ana Belén de Castro Ramos
Eluska Irazu Henández
Nestor Arana Arexolaleiba
Dorleta Sologaitoa Aguiriano
Xabier Uriarte Iñurrategi
Leire San Vicente Carrillo

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2022ko abenduaren 20an, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udaltzarra, ez ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 20 de diciembre de 2022, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAACV2LR.BHjq>

2022/12/20
Ez Ohiko Udaltza
Pleno Extraordinaria

1.- ALKATETZAREN ADIERAZPENAK.

2022ko abenduaren 15era arte Alkateak hartutako erabakien berri eman da.

2.- ZINEGOTZI BERRIAK KARGUA HARTZEA (EH BILDU ESKORIATZA)

Udalbatzarrari jakinarazi zaio Xabier Uriarte Iñurrategi jaunak, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 75. artikuluan aurreikusitakoa betez, ondare ondasunen, balizko bateraezintasun kausen eta diru sarrerak eman ditzaketen jardueren aitortpena egin duela dagokion interesen erregistroan inskriba daitezen, eta horrela, zinegotzi kargua hartzeko legezko tramiteak beteta, Udalbatzarrak Xabier Uriarte Iñurrategi jaunari bere kargua eman dio.

EH BILDUK proposatuta, eta zinegotzi berriak bere kargua hartuta, erabaki da EH BILDUKo zinegotzien parte hartzea batzorde informatzaileetan honela aldatzea:

- *Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzailea: Dorleta Sologastoa Agiriano*
- *Euskara, Gazteria eta Hezkuntza batzorde informatzailea: Xabier Uriarte Iñurrategi*

3.- ESKORIATZAKO UDALAREN 2023ko EKITALDIRAKO AURREKONTU OROKORRA ONARTZEA.

Hitza eman ondoren, honako parte hartze hauek izan dira:

Josu Ezkurdia: hasteko, esan behar dut hauek legegintzaldi honetako azken aurrekontuak izango direla, eta azkenak izateaz gain, legealdiko indartsuenak ere izango direla. Ia 8 milioi euroko aurrekontuak dira, hau da, aurtengoak baino % 49 handiagoak. Aurrekontu hauek bi helburu dituzte: bata, kontuan hartuta aurtengo urtea nolakoa izan den, arlo ekonomikoan bizi izandako arazoak eta datorren urtean ere izango direla aurreikusten direnak, gure helburua aurrekontu orekatuak aurkeztea izan da, hau da, horrekin esan nahi dut saiatu garela gastu arrunta diru-sarrera arruntekin parekatzen; horrela, lortzen duguna oreka finantzarioa da, eta ez sortzea defizit estrukturalik etorkizunerako, sartzen edo kobratzen dena baino gehiago gastatuta. Eta bigarren helburua finantzaketa lortzea izan da, proiektuak gauzatu ahal izateko eta "Eskoriatza eraikitzen" programarekin jarraitzeko. Alde batetik, energia jasangarriak bultzatu nahi ditugu, eta, horretarako, proiektu indartsu bat proposatzen dugu kiroldegia, Luis Ezeiza ikastetxea, liburutegia eta frontoia hartuko dituen geotermia sistema bat instalatzeko. Horrela, gas-hornidurarekiko dugun mendekotasuna murriztu eta energia jasangarria kontsumitzea lortuko genuke. Gainera, orain instalatuta ditugun eguzki plaken kopurua handitzea proposatzen dugu, eta lan horiek aprobetxatzea kiroldegiko kantxan egun dugun itoginen arazoa konpontzeko. Dorletako parkean egindakoaren antzeko beste proiektu batzuk ere planteatzen ditugu, aztertzen ari garenak, eta baita skate park berria ere, gaur egun Aretxabaletan dagoenaren antzekoa, hormigoizkoa, prestazioak eta mantentze-lanak hobetzeko asmoarekin. Eta, azkenik, gobernu-akordio bat dugulako, elizateetan proiektu edo inbertsio indartsuak planteatzen ditugu, bai eta jarduerak edo gastu arruntak ere; guztira, 135.000 euro inguru. Laburbilduz, esan dudana bezala, ia 8 milioiko aurrekontuak izango dira,

eta hortik 5,6 milioi sarrera arruntak izango dira, gastu arrunt guztiak finantzatzeko, eta 2.200.000 euro inguru geratuko lirateke aipatu ditudan inbertsioei ekiteko. Nola finantzatuko ditugu inbertsio horiek? Bada, batetik, mailegu bat eskatzea aurreikusten dugu, eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzaren eta Aldundiaren laguntza indartsuak lortzea espero dugu, horrelako proiektuak garatzen ditugun bakoitzean ohikoa den bezala. Hori esanda, aurrekontua Ogasun Batzordean planteatu zen, eta elizateek alde bozkatu zuten eta EH BILDUK kontra. Guk aldeko botoa emango dugu, eta uste dugu komenigarria dela aurrekontuak lehenbailehen onartzea proiektu asko martxan jarri ahal izateko.

Nestor Aranak eskerrak eman dizkio Josuri emandako azalpenengatik: gure proposamenak testuinguruan jartzeko, komenigarria iruditzen zait esatea kontuan hartzekoa dela krisi klimatikoan gaudela, eta halaxe aitortzen du Eusko Jaurlaritzak. Erronka bat dugu: 2030erako karbono-aztarna % 55 murriztu behar da, eta, 2050erako, zerora. Beno, krisi energetikoaren inguruan elektrizitatearena aipatu duzu, baina azken txostenetan oinarrituta, esan behar da, batez ere, gasaren erabilera handitu dela x3 eta x6 artean. Bada beste elementu bat, krisi sozialaren ingurukoa, adibidez, 43.000 euroko diru-sarrerak zituen familia bat, gasaren kostua X2 zenean, familia hori krisi energetiko egoeran edo krisian egoteko mugan zegoen. Orduan argi dago krisi klimatiko bat dagoela, krisi energetiko bat eta baita krisi sozial bat ere, gure herria, Eskoriatza, jasaten ari dena. Horren guztiaren aurrean, gure zuzenketetan epe laburreko jarduketak planteatzen dugu, hau da, energia-aholkularitzako bulego bat jartzea fakturak ulertzen laguntzeko eta isolamendu-sistemei buruzko aholkuak emateko. Jarduera hori berehala egitea proposatzen dugu, dagoeneko martxan egon beharko lukeela uste baitugu. Horrela, proposatutako kredituaren zati bat izango da herritarrei laguntzeko egin daitezkeen jarduerak identifikatzen, eta, bestea, jarduketak horiek gauzatzen laguntzeko. Egiten dugun bigarren proposamena, epe ertainera ezartzekoa, energia-komunitateak sortzea da. Horrekin lortu nahi den helburua herritarrak kontzientziatzea da. Energia-aholkularitzako bulegoarena aipatu dut, baina bulego hori ezin da mugarik gabe mantendu, eta haren “erantzukizunak” herritarrek hartu behar dituzte, eta, horretarako, aldez aurretik kontzientziatuta egon behar dira. Prestakuntza ere planteatzen da, jende askok, ikasketak izan arren, zailtasunak dituelako faktura bat ulertzeko, eta, era berean, proiektu handi samarrak aurkezten zaizkigunean, hala nola proiektu eolikoak, jendeak ezagutza eta prestakuntza izan ditzan horren aurrean erabakiak hartu ahal izateko. Hori bigarren jarduera litzateke, epe ertainerakoa. Epe luzera, garraio iraunkorrari buruzko azterketa sakon bat egitea proposatzen dugu. Foru Aldundiak egindako txosten baten arabera, Debagoiena da auto partikularra gehien eta bizikleta gutxien erabiltzen den eskualdea. Eta horri aurre egin ahal izateko hiru jarduera proposatzen ditugu: segurtasuna hobetzea, bizikletaren inguruko kultura bat sortzea eta garraio modu horri prestigioa ematea. Inguruko ikastetxeak, eta bereziki ALMEN aipatu nahi dut, egunero bertatik pasatzen naizelako, lan handia egiten ari dira. Lan egiten dugu, baina herriak gero ez du erantzuten, eta nola erantzungo luke? Gure ustez, segurtasuna hobetzeko neurriak hartuta. Ikastetxeak, dagoeneko, bultzatzen ari dira kultura bat, gure ustez, ikasleek mantendu dezaketena garraio mota horren segurtasuna eta prestigioa hobetzen baditugu. Horregatik, bidegorrirako sarbideak eta seinaleak hobetzea proposatzen dugu. Ildo beretik, politikariok eredu izan behar dugula uste dugu, eta, horretarako, ikusten dugu badela modu bat: dietak ordaintzeko udal-araudia aldatzea, eta dietarik ez ordaintzea inguruko udalerrietara edo hirietara auto partikularrean joanez gero, eta bai, ordea, bidaia autobusez egiten denean. Horrekin lortuko genuke politikariok garraio iraunkorraren erabilera sustatzea eta ikasleentzat eredu izatea. Eskoriatzak bihotz babestu programan parte hartzea ere proposatzen dugu, behar egoeran dauden herritarrek arreta ahalik eta azkarren izan dezaten. Eta azken hilabeteotan ere ikusi dugu Udalaren eta herriaren arteko distantzia oso handia dela, ikusi besterik ez dago zenbat jende etorri den azken 8 urteetan osoko bilkuretara. Aktibatu beharreko zerbait dela uste dugu. Lehen karbonoaren aztarnaren % 45ari egin diodan aipamena ez da Udalak bakarrik lor dezakeen

erronka bat, EAJk bakarrik ezin du egin, EH BILDUK bakarrik ezin du egin. Hori Udalak, alderdi politikoeak eta herritarrek egin behar dute. Horretarako, herritarrak aktibatu behar dira, eta, horregatik planteamendu bat egiten dugu parte har dezaten eta aktiboak izan daitezten.

Josu Ezkurdia: egia da EHBILDUK egiten dituen ekarpenak interesgarriak direla, baina gure ustez, eta hori da horiek ez onartzeko arrazoï nagusia, horretarako beharko lirakeen 120.000 euroek gastu arrunta handitzea dakarte, eta, berez, datorren urtean zaila izango da; berehala ahaleginak egin behar izan ditugu bi gastu-multzo handi finantzatu ahal izateko: energiarena (500.000 euro ingurukoa) eta gizarte-zerbitzuena (766.000 eurokoa). Egoera horretan ez dugu bideragarri ikusten 120.000 euro gehiago sartzea. Inbertsioak 47.000 euro jaitea proposatu du EHBILDUK, gastu arrunta finantzatzeko. Bestalde, gizarte-zerbitzuetan egiten dugun ahalegina frogatzeko, esan beharra dago egiten dugun gastu-aurreikuspenak aurtengo gastua % 24 handitzea dakarrela, hau da, dirulaguntzetara bideratutako dirua kontuan izan gabe, % 35 handitzen dena. Bi bonu-mota planteatzen dira: energia-bonuak, energia-kontsumoaren fakturak ordaintzeko zailtasunak dituzten familientzat, 10.000 euroko aurrekontu-sailarekin, eta inflazioari aurre egitekoak, beste 25.000 euro bonu-erosketetan. EH BILDUK, hortik, gizarte laguntzetatik 15.000 euro kentzea proposatu du. Bi arrazoik justifikatzen dute zure zuzenketak ez onartzea. Hala ere, proiektu interesgarriak iruditzen zaizkigu eta datorren urtean zenbakiak aldatzen badira, gastua murriztuta edota diru-sarrerak handituta, kontuan hartu ahal izango ditugun proiektuak dira.

Nestor Arana: guk planteamendu edo proposamen batzuk egiten ditugu, baina horrek ez du esan nahi gure planteamendua mugiezina denik finantzatzeko moduari dagokionez, ez dugu esaten horrela izan behar duenik, nik ez dut ikusten arazorik leku batetik edo bestetik ateratzeagatik; esan nahi dudana da borondaterik izanez gero, aukera duzuela dirua beste nonbaitetik atera eta proposatzen duguna sartu ahal izateko. Nahikoa denbora izan duzue horretarako. Gero, eta gure EZa justifikatzeko, eta are gehiago geotermiari buruzko partida kontuan hartuta, iazkoa gogoratzen baduzue, proiektu energetiko bat eskatzen genuen krisi klimatiko honen aurrean nola jokatu erabakitzen lagunduko ligukena, eta proiektu hori ez dago eginda; eta hori oso larria iruditzen zaigu, orain geotermia bai ala ez erabakitzeko zailtasunak ditugulako, eta oso larria da, geotermiaren hipoteka 6-7 urtekoa izango delako, eta 6-7 urte horien barru 2030. urtean izango garelako. Orduan, horrelako proiekturik izan gabe, lehenengo dirulaguntza eskatzea, gero aurreproiektu bat egitea, eta oraindik ere proiektua egiten ari bagara... oso arriskutsua iruditzen zaigu. Gainera, zergatik ez dira beste aukera batzuk aztertu? Ederlanek labeak ditu eta beroa sortzen du, zer kostu du? Egin diren kalkuluengatik kostua txikiagoa da eta hurbil daude. Hau adibide bat da, baina esan nahi dudana da ez daukagula "nola egin" hori. Eta hori da iaz adostu behar genuena. Ezin gara hipotekatu hori jakin gabe, eta are gehiago, lehen esan duzun bezala, agintaldiaren amaieran gaudela kontuan hartuta. Oso inbertsio handia da, eta, gure ustez, adostasun zabala izan behar du, bai politika mailan, bai herritarren artean. Beraz, proiektu energetiko hori ez dagoenez, zaila da erabaki bat hartzea, hori da arrazoietakoa bat. Bestalde, alderdi soziala dago trantsizio energetikoaren une honetan. Laguntzak aipatu dituzu, baina laguntza horiekin pertsona batek X2 edo X3 duen gastu handiago hori ordaintzen laguntzen duzu, eta gu esaten ari garena da gastu hori jaitsi egin behar dela, gastu hori hainbat alderditan jaitsarazi, esate baterako, kontsumoa jaitsaraziz, eta kontsumoa jaitea lortzen badugu, gero eman beharreko laguntzak ere txikiagoak izango dira. Hau da, laguntzekin ez dugu arazoa konpontzen, arazoa konpontzen dugu gastua jaitsita, kontsumoa jaitsita eta autokontsumoa sustatuta. Horrek irekiko digu herri erresilienteagoa izateko bidea. Eta hori da programa honetan falta dena, 2030erako karbono-aztarna % 55 nola murriztuko dugun zehaztea falta da. Zer plan dago? Zer plan du udal honek? Guk ez dugu ikusten.

Josu Ezkurdia: oker ez banago bi gai planteatu dituzu: batetik, plan energetiko bat ote dugun, eta bestetik, nola lagundu energia-kontsumoaren fakturak jasaten ari diren herritarrei. Energia planari dagokionez, iaz aurrekontuekin ibili ginenean aitortu nuen bezala, udaleko teknikariek in lan egin genuen eta ekainera-irailera iritsi ginen planaren zirriborro batekin. Egia da iaz gauza asko egin genituela plan zehatzik gabe (argiteria publikoa berritzea, instalazio elektrikoa hobetzea hainbat eraikinetan, eta horren adibide da kiroldegian egindakoa). Gure teknikarien ezagutzekin, energia-planaren zirriborroa izatera iritsi gara. Hortik aurrera, plan hori gauzatzeko, batez ere, iraunkortasunaren eta karbono-aztarnaren murrizketaren helburuekin, eta baita energia-eraginkortasunari buruzko autonomia-erkidegoko araudia betetzeko ere, ingeniari bat kontratatzeke fasean gaude. Beraz, plana badago, errematatzea falta da. Urtarrilerako ez bada, otsailerako plan hori eginda egotea espero dugu eta, gai guztiekin egiten den bezala, hirigintza batzordean elkarrekin ikusteko eta aztertzeke aukera izango dugula. Plan horretan, besteak beste, zalantzan jarri duzun geotermia-sistema agertuko da. Eta egia da proiektu handia dela, zuk hipoteka aipatu duzu, guretzat apustu bat da, zergatik? Ba, guk orain egin behar duguna gure energia-faktura jaistea delako, karbono-aztarna jaitsi behar dugu, eta hori azkar egin behar dugu. Partikularrei ez ezik, guri ere igo digute faktura. Beste urte bat emango dugu gasaren truke dirua oparitzen Errusiari edo Saudi Arabiari. Niri ere gustatzen zait gauza horiek pausoz pauso egitea, baina kontua da ez dugula denborarik galtzeko eta irtenbideak lehenbailehen bilatu behar direla. Horregatik geotermia-proiektua da gure proposamena. Geotermia-proiektua oso indartsua da, 2.000.000 -1.800.000 euro ingurukoa; espero dezagun % 30 edo % 40 diruz laguntzea, eta horrek pisu handia kenduko digu, eta gainerakoa mailegu batekin finantzatzea planteatzen dugu, baina ez finantza-erakunde pribatu batekin, Eusko Jaurlaritzarekin baizik, EEEren bitartez, eta zergatik? Ba, alde batetik, Eusko Jaurlaritzak konfiantza ematen digulako, eta, bestetik, 0 interesagatik ematen digutelako. Eta, gainera, EEEren programa horretan mailegua amortizatzen joaten da kontsumoan lortzen diren aurrezkiekin. Arriskua badago, noski, baina faktura energetikoa murriztea lortuko dugu, karbono-aztarna murriztea eta finantzaketa-baldintza onak izatea. Eta amaitzeko, eta planteatu duzun bigarren gaiari dagokionez, egia da badirela baliabideak etxebizitzetako energia-kontsumoaren faktura murrizteke, baina jendeak benetan behar duena ez da faktura aldatzeko prestakuntza bat, nahiz eta garrantzitsua izan, jendeak behar duena da hilabete honetan ordaindu behar duen faktura ordaindu ahal izatea, eta horregatik planteatzen ditugu laguntza horiek, gaur, bihar edo etzi faktura horiek ordaindu ahal izateke.

Hitz egiteke txandak amaituta, bozketa egin da.

Bertaratutako udalbatzarkide guztiek bozkatuta, 7 zinegotzik alde bozkatuta (EAJ/PNVko 6 eta EEEko 1) eta 4k aurka (EH BILDU), Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- EH BILDUk 2022/11/23an (sarrera erregistroko zenbakia: 2.139) aurkeztutako zuzenketa partzialak EZESTE.

Bigarrena.- -Hasiera batean onartzea honako kopuru honetako udal aurrekontua: 7.932.926,72 €

Hirugarrena.- 2021eko aurrekontua orokorra osatzen duen dokumentazio guztia hasiera batean onartzea, apirilaren 15eko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuz (LED) onartutako Testu Bateginako 445. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Laugarrena.- Erreklamazioak edo iradokizunak jartzeko hamabost egunez jendaurrean egoteko epean inolako erreklamaziorik ez balego, onarpena behin betikotzat jotzea.

4.- 2023. URTEKO LANPOSTU ZERRENDA ETA PLANTILLA ORGANIKOA ONARTZEA.

Eztabaidatuta eta bototara jarrita, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako zinegotzi guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 2023ko plantilla organikoa eta lanpostu zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Erabaki horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, 15 egun balioduneko epean interesdunek azter ditzaten eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri Udalbatzarrari.

Erabakiak behin betiko onartutzat joko dira aipatutako epean ez bada erreklamaziorik jartzen; eta ondorio horietarako, Alkateak behin betikotzat joko du erabakia eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko du.

Erreklamaziorik aurkeztuz gero, horiek onartzeko edo baztertzeko eta plantilla organikoaren eta lanpostu zerrendaren aldaketak behin betiko onartzeko proposamena egingo zaio Udalbatzarrari hilabeteko epean.

5.- DIRULAGUNTZEN 2019-2023 PLAN ESTRATEGIKOAREN EGOKITZAPENA.

Udalbatzarrak, 2019ko abenduaren 17an egindako bilkuran, 2020-2023 dirulaguntzen plan estrategikoa onartu zuen.

Hasierako onarpenaren aurkako erreklamazio edo iradokizunik egon ezenez, eta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49. artikulua c) letran apirilaren 21eko 11/1999 Legeak gehitutako azken paragrafoan aurreikusitakoaren arabera, Udalbatzarrak 2019ko abenduaren 17an hasiera batean hartutako erabakia behin betikotzat bihurtu zen.

Plan horrek, 4. eta 11. artikuluetan, eranskineko dokumentuetara bidaliz, 2021eko ekitaldirako aurreikusitako laguntzak aurreikusten ditu.

2023ko ekitaldirako aurrekontua onartuta, planeko ERANSKINAK aurrekontu horren edukira egokitu behar dira.

Aurrez esandako guztia ikusita, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- 1. ERANSKINEAN jaso bezala eguneratzea 2020-2023 dirulaguntzen plan estrategikoen ERANSKINAK, plana 2023ko ekitaldiko aurrekontuen edukira egokitzeko.

6.- GAI ZERRENDAN GAIA SARTZEA BERRESTEA: E-GOITEK SL-REN FAKTURA ORDAINTZEA (azaroko kirol zerbitzuak).

Gaia presaz sartzeko arrazoiak azalduta (uztailaren 5eko 15/2010 Legean fakturak ordaintzeko ezarritako epeak betetzea, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duena), aho batez erabaki da gaia gai-zerrendan sartzea berrestea.

Ondoren, honako erabaki hau hartu da:

E-Goitek SLk faktura bat aurkeztu du, 2022ko abenduaren 14koa (81. faktura), 2022ko azaroan emandako zenbait kirol-zerbitzuri dagozkionak.

2022ko abenduaren 20an egindako txostenean, idazkari-kontuhartzaileak legezkotasun eragozpena jarri dio espediente horri, horretarako kontraturik ez dagoelako.

Udal zerbitzu teknikoek faktura horiek ordaintzearen aldeko txostena egin dute, alegatuz zerbitzua egoki eta merkatuko ohiko prezioetan eman dela.

Kontuan hartuta faktura hori ordaindu ezean fede onez ari diren hirugarrenak kaltetuko liratekeela (kasu honetan, E-GOITEK SL) eta administrazio honek bidegabeko irabaziak izango lituzkeela, Udalbatzarrak, bertaratutako zinegotzi guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

- E-GOITEK SLk aurkeztutako 81. faktura, 2022ko abenduaren 14koa, ORDAINTZEKO AGINTZEA. Faktura hori 2022ko azaroan emandako zenbait kirol-zerbitzuri dagokie.

Eta beste gairik ez dagoenez, 18:35ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.

1.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDIA

Se da cuenta de las resoluciones dictadas por la Alcaldía hasta el 15 de diciembre de 2022.

2.-TOMA DE POSESIÓN DE CARGO POR NUEVO CONCEJAL (EH BILDU ESKORIATZA)

Dada cuenta al Pleno de que ha sido formulada la declaración de bienes patrimoniales, y de causas de posibles incompatibilidades y actividades que puedan proporcionar ingresos económicos, a los efectos de su inscripción en el correspondiente registro de intereses, tal como está previsto en el artículo 75 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, y cumplidos los trámites legales de toma de posesión del cargo de concejal, el Pleno da posesión de su cargo a Xabier Uriarte Iñurrategi.

A propuesta del grupo EHBILDU-Eskoriatza, y tras la incorporación de un concejal nuevo, se acuerda aprobar los siguientes cambios en la participación de los concejales de EHBILDU en las comisiones informativas:

- *Comisión Informativa de Servicios Sociales: Dorleta Sologaistoa Agiriano*
- *Comisión Informativa de Euskera, Juventud y Educación: Xabier Uriarte Iñurrategi*

3.-APROBACIÓN DEL PRESUPUESTO GENERAL DEL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA PARA EL EJERCICIO 2023

Concedida la palabra, se producen las siguientes intervenciones:

Josu Ezkurdia: Para empezar, he de decir que estos serán los últimos presupuestos de esta legislatura y que además de los últimos también los más potentes de la legislatura. Son unos presupuestos de casi 8 millones de euros, esto es, un 49% más que los de este año. Estos presupuestos tienen dos objetivos: Uno, teniendo en cuenta cómo ha sido este año, los problemas vividos en el ámbito económico y que se prevé que también habrá el próximo año,



nuestro objetivo ha sido presentar unos presupuestos equilibrados, esto es, con ello quiero decir que nos hemos esforzado en equiparar el gasto corriente con los ingresos corrientes; así, lo que conseguimos es un equilibrio financiero y no crear para el futuro un déficit estructural en el que lo que se gaste sea mayor que lo que ingresamos o cobramos. Y el segundo objetivo ha sido conseguir financiación para poder materializar proyectos y seguir con el programa “Eskoriatza eraikitzen” En este último sentido planteamos 3 ámbitos principales. Por un lado queremos impulsar las energías sostenibles, y para ello planteamos un proyecto potente para instalar un sistema de geotermia que abarque al polideportivo, al colegio Luis Ezeiza, a la biblioteca y al frontón. Con ello conseguiríamos reducir la dependencia que tenemos del suministro de gas y consumir energía sostenible. Además, planteamos incrementar el número de placas solares que ahora tenemos instaladas y aprovechar esos trabajos para solucionar simultáneamente el problema de goteras que ahora tenemos en la cancha del polideportivo. También planteamos otros proyectos parecidos al ejecutado en el parque de Dorleta, que estamos estudiando, así como el nuevo skate park, que sería del estilo al existente hoy en día en Aretxabaleta, de hormigón, con ello pretendemos mejorar tanto las prestaciones de la instalación como su mantenimiento. Y por último, porque tenemos un acuerdo de gobierno, planteamos proyectos o inversiones potentes así como actuaciones o gastos corrientes en las anteiglesias, que en total vienen a suponer unos 135.000 euros. En resumen, como ya he dicho, serán unos presupuestos de casi 8 millones, de ahí 5,6 millones serán ingresos corrientes con los que se financiarían todos los gastos corrientes y quedaría unos 2.200.000 de euros para abordar las inversiones que he mencionado. ¿cómo pensamos financiar esas inversiones? Pues, por un lado, prevemos pedir un préstamo, y por otro lado esperamos conseguir unas ayudas potentes tanto del Gobierno Vasco como de la Diputación, como es habitual cada vez que desarrollamos proyectos de este tipo. Dicho esto, esto se planteó en la comisión de hacienda y tuvo el voto favorable de elizateak y el voto en contra de EH BILDU. Nosotros votaremos a favor y creemos que es conveniente tener cuanto antes unos presupuestos aprobados para poder poner en marcha muchos de los proyectos.

Nestor Arana, tras agradecer a Josu las explicaciones dadas dice: Para poner en contexto nuestras propuestas considero conveniente decir que es de tener en cuenta que estamos en una situación de crisis climática, y así está reconocido por el Gobierno Vasco. Tenemos un reto y es que para el año 2030 hay que reducir en un 55% la huella de carbono y para el 2050 hay que reducirlo a cero. Bueno, has mencionado en torno a la crisis energética lo de la electricidad pero, con base a los últimos informes, hay que decir que sobre todo ha aumentado el gas entre un x3 y un x6. Hay otro elemento, es en relación a la crisis social, y que es que por ejemplo una familia con 43000 euros de ingresos y cuando el costo del gas era X2 esa familia estaba en una situación de crisis energética ó al límite de estarlo. Entonces es claro que hay una crisis climática, una crisis energética y también una crisis social que ya está sufriendo nuestro propio pueblo, Eskoriatza. Ante todo eso, en nuestras enmiendas planteamos una actuación a corto plazo y que consiste en instalar una “oficina de asesoría energética” que pueda ayudar a entender las factura, que asesore sobre sistemas de aislamiento. Esta actuación planteamos que se lleve a cabo con carácter inmediato porque creemos que ya debiera de estar en marcha. Así una parte del crédito propuesto será para ayudar a los vecinos a identificar las actuaciones que se pueden llevar a cabo y la otra para ayudar en la materialización de esas actuaciones. La segunda propuesta que hacemos, y que sería para implantar a medio plazo, es la de crear “comunidades energéticas”. El objetivo pretendido con ello es “concienciar” a la ciudadanía. He mencionado lo de la oficina de asesoría energética, pero ésta no se puede mantener indefinidamente y sus “responsabilidades” hay que trasladarlas a la ciudadanía y para eso éste ha de estar previamente concienciado. También se plantea una formación porque hay mucha gente que, aunque tenga estudios, tiene dificultades para entender una factura, y también para que cuando se nos presenten proyectos de cierta envergadura, como puede ser el caso del

2022/12/20

Ez Ohiko Udalbatza
Pleno Extraordinaria

proyecto eólico, la gente tenga conocimientos y una formación para poder tomar decisiones ante eso. Esa sería la segunda actuación propuesta a medio plazo. A largo plazo, planteamos hacer un estudio a fondo sobre el transporte sostenible. En un informe emitido por la Diputación, Debagoiena es la comarca donde más se usa el coche particular y donde menos se usa la bicicleta. Y para poder hacer frente a eso proponemos tres actuaciones: mejorar la seguridad, crear una cultura y dotar de prestigio a ese modo de transporte. Los colegios del entorno, y menciono especialmente a ALMEN porque todos los días paso por allí, están haciendo un gran trabajo. Trabajamos pero el pueblo luego no responde y ¿cómo respondería? Pues creemos que tomando medidas que mejoren la seguridad. Los colegios ya están impulsando una cultura que creemos que puede ser mantenida por sus alumnos si mejoramos la seguridad y el prestigio de ese tipo de transporte. Por eso planteamos mejorar tanto los accesos como la señalización del bidegorri. En esa misma línea, consideramos que los políticos hemos de ser ejemplo y para ello vemos que hay una forma y es en el momento de pagar las dietas, cambiar la normativa municipal y no pagar esas dietas si se desplaza en coche particular a los municipios del entorno o a las ciudades y sí pagar cuando el desplazamiento se haga en autobús. Con eso conseguiríamos que ese político fomentase el uso del transporte sostenible y fuese un ejemplo para los alumnos. También proponemos que Eskoriatza participe en el programa “bihotz babestu” para que los vecinos que se vean en un estado de necesidad tengan una atención lo más rápida posible. Y también hemos visto estos últimos meses que la distancia entre el Ayuntamiento y el pueblo es muy grande, no hay más que ver cuánta gente ha venido en los últimos 8 años a los plenos. Creemos que es algo que hay que activar. La mención que he hecho antes al 45% de la huella del carbono no es un reto que el Ayuntamiento puede conseguir a solas, EAJ solo no puede hacer, EH BILDU solo no puede hacer.. Eso tienen que hacerlo tanto el Ayuntamiento, como los partidos políticos como la ciudadanía. Para eso hay que activar a los vecinos y para ello hacemos un planteamiento para que tomen parte y se muestren activos.

Josu Ezkurdia: Es verdad que las aportaciones que hace EHBILDU son interesantes, pero a nuestro entender, y es el principal motivo por el que no las aceptaremos, los 120.000 euros en los que se cuantifican suponen incrementar el gasto corriente, y de por sí el año que viene será complicado; de por sí nuestro esfuerzo nos ha costado poder financiar dos grandes grupos de gastos: el de la energía, que supone unos 500.000 euros, y el de servicios sociales, que nos supone un esfuerzo de 766.000 euros. En esa situación no vemos factible meter 120.000 euros más. EHBILDU plantea bajar las inversiones en 47.000 euros para financiar gasto corriente. A parte, para probar el esfuerzo que hacemos en servicios sociales hay que decir que la previsión de gasto que hacemos supone incrementar en un 24% el gasto de este año, la cantidad destinada a subvenciones no incluida, que se incrementa en un 35%, se plantean dos tipos de bonos: los bonos-energía, para las familias que tienen dificultades para pagar las facturas del consumo energético, con una partida de 10.000 euros y, para hacer frente a la inflación otros 25.000 euros en bonos-compra. EHBILDU plantea quitar de aquí, de las ayudas sociales, 15.000 euros. Son dos las razones que justifican que nos parezcan no estimables sus enmiendas. No obstante, nos parecen proyectos interesantes y si durante el año que viene los números cambian, en el sentido de reducirse el gasto y/o aumentar los ingresos, son proyectos que podrán ser tenidos en cuenta por nuestra parte.

Nestor Arana: Nosotros hacemos unos planteamientos o propuestas, pero eso no quiere decir que en lo que respecta a la forma de financiar nuestro planteamiento sea inamovible, no decimos que tiene que ser así, yo no veo el problema en el que se saque de un sitio u otro; lo que quiero decir es que si tenéis voluntad tenéis la opción de poder sacar el dinero de algún otro sitio y poder meter lo que proponemos. Habéis tenido suficiente tiempo para ello. Luego, y en aras a justificar nuestro NO, y más teniendo en cuenta la partida sobre la geotermia, si

recordáis el año pasado pedíamos un proyecto energético que nos ayude a decidir cómo lo haremos ante esta situación de crisis climática, y ese proyecto no está hecho; y eso nos parece muy grave porque ahora tenemos dificultades para decidir sobre geotermia sí ó no, y es muy grave porque la hipoteca de la geotermia será de 6-7 años, y dentro de esos 6-7 años estamos en el año 2030. Entonces, no teniendo eso proponer un proyecto en el que primero se ha pedido subvención, luego se ha hecho un anteproyecto, estamos todavía haciendo el proyecto... nos parece muy arriesgado. Además. ¿porqué no se han analizado otras alternativas? Ederlan tiene hornos y produce calor, ¿qué costo tiene? De los números que se han hecho el costo es menor y están cerca. Esto es un ejemplo, pero lo que vengo a decir que no tenemos ese “cómo hacer”. Y eso era lo que íbamos a consensuar el año pasado. Lo que no podemos es hipotecarnos sin saber eso, y más, como has dicho antes, teniendo en cuenta que estamos a final de legislatura. Es una inversión muy grande que a nuestro entender debe de tener un amplio consenso tanto a nivel político como a nivel de la ciudadanía. Entonces, la falta de ese proyecto energético hace que sea difícil tomar una decisión, ese es uno de los motivos. Por otro lado está el aspecto social en este momento de transición energética. Has mencionado las ayudas, pero lo que haces con esas ayudas es ayudar a pagar ese mayor gasto que X2 o X3 tiene una persona, y nosotros lo que venimos diciendo que lo que hay que hacer es bajar ese gasto y hacer bajar ese gasto en distintos aspectos, como haciendo que baje el consumo , y si logramos que baje el consumo las ayudas que luego tengamos que dar también serán menores. O sea, con las ayudas no solucionamos el problema, solucionamos el problema haciendo bajar el gasto, haciendo bajar el consumo y promocionando el autoconsumo. Eso es lo que nos llegará a abrir el camino para ser un pueblo más resiliente. Y es eso lo que falta en este programa, falta definir el cómo vamos a llegar a reducir para 2030 en un 55% la huella de carbono. ¿qué plan hay? ¿qué plan tiene este ayuntamiento? Nosotros no lo vemos.

Josu Ezkurdia: Si no me equivoco has planteado dos cuestiones: por un lado, si tenemos un plan energético, y por otro cómo ayudar a la ciudadanía que está sufriendo las facturas del consumo energético. En cuanto al plan energético, como ya lo reconocí el año pasado cuando anduvimos con los presupuestos, trabajamos con lo técnicos del ayuntamiento y llegamos al mes de junio-septiembre con un borrador de plan. Es cierto que el año pasado hicimos un montón de cosas sin un plan concreto(renovación del alumbrado público, mejoras de la instalación eléctrica en diversos edificios, siendo ejemplo de ello la llevada a cabo en el polideportivo.) Con los conocimientos de nuestros técnicos hemos llegado a tener un borrador de plan energético. De ahí en adelante, y para materializar dicho plan principalmente con los objetivos de la sostenibilidad y de la reducción de la huella de carbono, y también para cumplir con la normativa autonómica sobre eficiencia energía, estamos en fase de contratación a una ingeniería para finalizar ese plan. Entonces, plan sí que hay, falta rematarlo. Esperamos que sino es para enero, si para febrero ese plan esté elaborado y tendremos ocasión, como se hace con todo, de verlo y analizarlo juntos en la comisión de urbanismo. En ese plan aparecerá entre otros el sistema de geotermia que has puesto en duda. Y es verdad que es un proyecto grande, tú los has hablado de “hipoteca”, para nosotros es una apuesta, ¿porqué? Porque nosotros lo que ahora tenemos que hacer es bajar nuestra factura energética , lo que tenemos que hacer es bajar la huella de carbono, y eso lo tenemos que hacer rápido. No solo le ha subido la factura a los particulares, también a nosotros. Vamos a estar otro año regalando el dinero por su gas a Rusia o a Arabia Saudí. A mí también me gusta hacer estas cosas paso a paso, pero el asunto es que no tenemos tiempo que perder y que hay que buscar soluciones lo antes posible. Por eso nuestra propuesta del proyecto de geotermia. El proyecto de geotermia es muy potente, de unos 2.000.000 -1.800.000 euros; esperemos que nos subvencionen el 30% o el 40% y ello nos quitará mucho peso, y el resto planteamos financiar con un préstamo, pero no de una entidad financiera privada sino del Gobierno Vasco a través del EVE, y ¿Por qué? Porque por una lado el Gobierno Vasco nos inspira confianza y por otra

por que el interés con el que dan es “0”. Y además, en ese programa del EVE el préstamo se va amortizando con los ahorros que se consiguen en el consumo. Claro que hay un riesgo, pero conseguiremos reducir la factura energética, reducir la huella de carbono y unas buenas condiciones de financiación. Y para terminar y en relación a la segunda cuestión que has planteado, es verdad que hay medios para reducir la factura del consumo de energía en las viviendas, pero lo que la gente realmente necesita no es una formación para cambiar la factura, aunque sea importante, lo que la gente necesita es poder pagar la factura que tiene que pagar este mes, y por eso planteamos esas ayudas, para que pueda pagar hoy, mañana o pasado esas facturas.

Terminadas todas la intervenciones se procede a votar.

Emitido el voto por todos los corporativos presentes, el Pleno, con el voto a favor de 7 concejales (6 de PNV/EAJ , y 1 de EEE) y el voto en contra de los 4 concejales restantes (EHBILDU) ACUERDA:

Primero.- DESESTIMAR las enmiendas parciales presentadas el 23/11/2022 por EHBILDU por escrito con N^a Registro de Entrada 2139

Segundo: -Aprobar inicialmente el Presupuesto municipal por importe de 7.932.926,72 €

Tercero.- Aprobar inicialmente toda la documentación que integra el Presupuesto General para 2021, de conformidad con lo establecido en el art. 445 del Texto Refundido aprobado por R.D.L. 781/1986, del 15 de abril.

Cuarto.- Entender elevada a definitiva su aprobación en el caso de que no se produjera reclamación alguna en el periodo de exposición pública, a los efectos de admitir reclamaciones y sugerencias, de quince días.

4.-.-APROBACIÓN DE LA RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO Y PLANTILLA ORGÁNICA PARA EL EJERCICIO 2023

Sometido a debate y votación, de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda, y con el voto a favor de todos los concejales presentes, el Pleno ACUERDA :

PRIMERO.- Aprobar la plantilla orgánica y la relación de puestos de trabajo para 2023

SEGUNDO.- Publicar dichos acuerdos en el Boletín Oficial de la Provincia por plazo de 15 días hábiles, al objeto de que los interesados puedan examinarlo y presentar las reclamaciones que consideren oportunas, ante el Ayuntamiento Pleno.

Los acuerdos se considerarán definitivamente aprobados si durante el citado plazo no se presentan reclamaciones, a cuyo efecto la Alcaldía elevará el acuerdo a definitivo y ordenará su publicación en el Boletín Oficial de la Provincia.

En caso de que se presenten reclamaciones se elevará, en el plazo de un mes, al Ayuntamiento Pleno, propuesta de estimación o desestimación de las mismas y de aprobación definitiva de la modificación de la plantilla orgánica y de la relación de puestos de trabajo .

5.-.-ADECUACIÓN DEL PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES 2019-2023.

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión celebrada el 17 de diciembre de 2019, adoptó el acuerdo de aprobar el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023.

No habiéndose presentado reclamación o sugerencia alguna en relación a la aprobación inicial, y al amparo de lo previsto en el párrafo final de la letra c) del art. 49 de la Ley 7/85, del 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, introducido por la Ley 11/1999, de 21 de abril, el acuerdo de aprobación inicial adoptado por el Pleno del Ayuntamiento en fecha 17 de diciembre de 2019 devino en definitivo.

Dicho Plan, en sus artículo 4 y 11, remitiéndose a los Anexos del documento, contempla las ayudas previstas para el ejercicio 2021.

Aprobado inicialmente el Presupuesto correspondiente al ejercicio 2023, es preciso adecuar los ANEXOS del plan al contenido de dicho Presupuesto.

Por cuanto antecede, de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda, y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

Primero: Actualizar en los términos que constan en el ANEXO 1 a la presente los ANEXOS del Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 y al objeto de adecuar dicho plan al contenido del Presupuesto del ejercicio 2023.

6.- RATIFICACIÓN DE LA INCLUSIÓN DEL ASUNTO DENTRO DEL ORDEN DEL DÍA: ORDEN DE PAGO DE FACTURA A E-GOITEK (servicios deportivos del mes de noviembre)

Explicadas las razones por las que se ha incluido el asunto por urgencia (cumplir con los plazos que para el pago de las facturas se establecen en la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales), por unanimidad se acuerda ratificar la inclusión del asunto dentro del orden del día.

A continuación se adopta el siguiente acuerdo:

E-GOITEK S.L. ha presentado 1 factura de fecha 14 de diciembre de 2022 (Factura nº 81) , relativos a diversos servicios deportivos prestados durante noviembre de 2022.

Por la Secretaria- Interventora, con fecha 20 de diciembre de 2022, se formula reparo de legalidad a dicho expediente basado en la inexistencia de contrato.



Desde los servicios técnicos municipales se informa en el sentido de proceder al abono de dichas facturas alegando que el servicio ha sido prestado satisfactoriamente y a los precios habituales de mercado.

Considerando que el no abonar las mismas implicaría perjudicar a terceros que actúan de buena fe (en este caso E-GOITEK S.L.) y un enriquecimiento injusto para esta administración, es por lo que el Pleno, con el voto favorable de todos los corporativos presentes, ACUERDA:

- ORDENAR EL PAGO de las facturas nº 81, de fecha 14 de diciembre de 2022, emitida por E-GOITEK S.L. y relativa a diversos servicios deportivos prestados durante noviembre de 2022

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18: 35 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.